gisa nagusitu zen. Parisen, denbora luzeak igaro zituen. Bertan, "Montmartre" izeneko mihisea egin zuen, Maurice Utrillo-ren modura egindako paisajismo hiritarraren adibidea. Frantziako hiriburuan hainbeste garatu zen paisajismo hiritar hau Durancamps-ek, berezkoak gertatzen zaizkion marrazketaren sortzetiko sen eta atmosfera garbi horiekin interpretatzen du. Donostia asko maite zuen pintore hau, bertan bizi izan zen eta erakusketak ere egin zituen.



**Francisco López Alén (1866-1910)**
"Puyo-santiago Erreka (Efecto de lluvia)". 1896

Euskal paisajistei dagokienez, gogoratu Gipuzkoan genero hau oso ezaguna izan zela, eta Pedro Gassis (1850-1896) pasaitarra edo Darío de Regoyos (1857-1913) eta José Salís (1863-1927) Irungo semetzat hartutakoak bezalako artista paregabeez gain (San Telmo Museoko bilduma iraunkorrean ondo ordezkatuak), genero hau landu duten asko daudela.

Joan den mendeko emakumezko euskal artista bakarretakoa zen **Inocencia Arangoa** (1884-1935) andrearen kasua berezia da. Altzan jaioa, Alejandrino Irureta pintore tolosarraren ikaslea izan zen, ondoren Madrilgo Pinturako, Eskulturako eta Grabatuko Eskola Berezian jarraituz bere ikasketak. Hiri honetan hasi zen bizitzen, grabatuaren arloan lan eginez eta Arte Ederretako Erakusketa Nazionaletara aurkeztuz. Landaretzaren ikasketan buru-belarri murgiltzen den "En la Real Casa de Campo" izeneko mihiseak, Arangoa, artista sendo gisa erakusten digu, errealismotik mende-amaierako inpresionismotik baino hurbilago.

Behar bada, jarduera poetikoarengatik eta ikertzailearengatik ezagunagoa zen ("Euskal-Erria"

Por lo que respecta a los paisajistas vascos, hay que recordar que este género fue muy popular en Gipuzkoa y que además de figuras señeras como el paisatarra Pedro Gassis (1850-1896) o los iruneses de adopción Darío de Regoyos (1857-1913) y José Salís (1863-1927), –bien representados en la colección permanente del Museo San Telmo–, hay toda una serie de cultivadores de este género.

Un caso singular es el de **Inocencia Arangoa** (1884-1935), una de las pocas artistas vascas del siglo pasado. Nacida en Alza, fue discípula del pintor tolosarra Alejandrino Irureta y luego continuó su formación en la Escuela Especial de Pintura, Escultura y Grabado de Madrid, ciudad en la que se estableció trabajando en el campo del grabado y concurriendo a las Exposiciones Nacionales de Bellas Artes. Su lienzo "En la Real Casa de Campo", totalmente centrado en el estudio de la vegetación, nos la muestra como una artista sólida, más cercana al realismo que al impresionismo finisecular.

El donostiarra **Francisco López Alén** (1866-1910), probablemente más conocido por su actividad poética e investigadora (fue director de la revista "Euskal-Erria", de la Biblioteca Municipal de San Sebastián y cronista de la ciudad) cultivó también la pintura. Se formó con Ramos Artal en la Escuela Especial de Pintura de Madrid, inclinándose por el género de paisaje y llegando a ser nombrado académico correspondiente de San Fernando. Es autor de obras vinculadas a la ciudad de San Sebastián como "Puyo-Santiago Erreka", en la que capta con gran naturalismo el reflejo del cielo gris y la silueta del monte en las aguas del Urumea.